

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Sanz Lehendakariak gosaria eskaini die 2011ko Vianako Printzea Sarien irabazleei

Ekitaldiaren ondoren, lauek Nafarroako Urrezko Liburuan sinatu dute

Miércoles, 01 de junio de 2011

Miguel Sanz Sesma Nafarroako jarduneko Lehendakariak gaur goizean gosaria eskaini die, atzo, Kulturaren, Elkartasunaren eta Mendekotasunaren 2011ko Vianako Printzea Nafarroako Nazioarteko Sarien lau irabazleei. Ekitaldia Nafarroako Jauregian egin dute eta sarituak izan dira han, hurrenez hurren, Faustino Menéndez Pidal heraldista, Manuel Elkin Patarroyo zientzialaria eta, Iriscom enpresaren partez, Pedro Palomo eta José Maro Arrazola enpresaren sortzaile eta zuzendariak, senideekin batera.



Gosarian

Horiez gain, han izan dira Juan Ramón Corpas jarduneko Kultura kontseilaria, María Isabel García Malo Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietakoa, epaimahaiko buruak eta kideak eta Caja Navarra eta Euskadiko Kutxa erakunde babesleetako ordezkariak.

Ekitaldian, Sanz Lehendakariak, ordenagailu baten bidez, Iriscom enpresak proposaturiko sistemak nola funtzionatzen duen ikusi ahal izan du hantxe bertan. Sistema horri esker lortu du Iriscom enpresak Mendekotasunaren 2011ko Vianako Printzea Saria.

Amaitzeko, Sanzek irabazleei Nafarroako Urrezko Liburuan sinatzeko eskatu die.

Lehenengo argazkian honako hauek azaltzen dira ezkerretik eskuinera: María Ibáñez Caja Navarra fundazioko presidentea, Pedro Palomo eta José Mari Arrazola, azken horren emaztea, Txomin García Euskadiko Kutxako presidentea, Miguel Angel Argal Elkartasunaren sariko epaimahaikidea, Charo Martínez Sanz Lehendakariaren



Lehendakaria Arrazolaren argibideak jarraitzen

aholkularia, Jürgen Untermanen emaztea, Jürgen Unterman Kulturaren sariko epaimahaiburua, Juan Ramón Corpas Mauleón, Faustino Menéndez Pidalen emaztea, Menéndez Pidal, Sanz Lehendakaria, Manuel Elkin Patarroyo, María Isabel García Malo eta Javier Cortajarena Euskadiko Kutzaren Nafarroako zuzendaria.

Bigarren argazkian, Sanz Lehendakaria Iriscomek asmatuiko sistema begira ari da Arrazolaren laguntzarekin. Horien atzean, ezkerretik eskuinera, hauek agertzen dira: Cortajarena, García Malo, Alberto Pascual (Caja Navarrako idazkari nagusia), Ibáñez, Lola Eguren (Nafarroako Gobernuako Erakundeekiko Harremanetarako zuzendari nagusia), Unterman, horren emaztea, Menéndez Pidal, Corpas eta Martínez.